

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

ADMINISTRARITZA- ETA KUDEAKETA-OINARRIAK

ANJE DELGADO

DANEL GARCIA

YURENE FERNANDEZ

ESTIBALITZ NAVARRO

GARAZI PEREZ

BALIABIDEAK

Baliabide desberdinekin, enpresak bezeroarengana iristeko aukera izango du, bezeroarekiko harremana mantendu eta diru sarrerak lortu ahal izango ditu. Funtsezko baliabide hauek, lau baliabide desberdinetan sailkatzen dira: Baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza baliabideak. Hauek guztien barnean badira funtsezkoak direnak. Gure enpresarentzat bakoitzetik egokiak direnak aukeratuko ditugu:

Lehenik eta behin, baliabide fisikoetan, instalazioak beharko ditugu. Bulego bat eta gure produktua ekoizteko lantegi bat zehazki. Horretaz gain, ibilgailuak ere beharrezkoak izango dira gure enpresan, ekoiztutako produktua banatu ahal izateko. Garraioa, furgoneta edo kamioi bat izan daiteke. Gure produktua egiteko, gure lantegian, hasieran langileak kontratatuko ditugu. Negozioak funtzionatzen baldin badu eta etekin ekonomiko esanguratsuak lortzen baditugu, makina batzuk jarriko genituzke lana mekanikoagoa egiteko eta ekoizkortasuna igotzeko. Langile batzuk mantendu egingo genituzke makina hauek programatzeko eta gainbegiratzeko. Makina horiek, erdiko makila egiteko eta ertzetako kotoiari forma emateko makinak izango dira zehazki. Hasieran langileak direnez produktua ekoiztuko dutenak, makinarentzat ez dugu sistema informatikorik beharko, baina, esan dugun bezala, langile horiek makinengatik ordezkatuak izango balira, sistema informatikoa dudarik gabe beharko genuke. Hau da, makina horiek martxan jartzeko sistema hori beharrezkoa izango litzateke. Gure produktuaren banaketa kontrolatzeko adibidez, *GPSa* baliatuko ditugu, gure produktua bidalitako helmugara iritsi den ala ez jakiteko. Gure produktua saltzeko ez ditugu denda propioak izango, hau da, jadanik existitzen diren dendez baliatuko gara. Adibidez, farmaziez edota farmazietatik kanpo dauden makinez, supermerkatuez...

Baliabide intelektualetan oinarritzen diren negozio-eredu garrantzitsu batzuk ere kontuan hartuko ditugu: gure marka propioa edukitzea erabaki dugu, izan ere, gure produktua beste produktu baten berrikuntza da eta produktu desberdina sortuko dugunez, gurea dela adierazi nahi dugu. Honekin batera, egile-eskubideak izango ditugu, gure ideiak balio bat duelako eta ez dugulako nahi inork gure ideia zapuztea, okerrera eramanez edota gure merituak kenduz.

Giza baliabideetan, gure produktua egiteko sormena izan behar dugula iruditzen zaigu, izan ere, edozein momentuan berrikuntzaren bat egin behar badugu ideia berriak izan beharko ditugulako. Horiek aurrera eramateko eta errentagarriak izan ahal izateko, sormena izan behar dugu. Ezagutzari dagokionez, ezagutza minimo bat beharrezkoa izango dugu, zehazki, kutsatzen ez duten materialen inguruan, materialen ezaugarrien inguruan (zer, nola, zertarako,...),... Azkenik, gaitasun komertzialaren arloa garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Batetik, gure produktua non, nola, nori, zergatik,.. salduko dugun erabakitzeko beharrezkoa dugulako, eta horretarako marketinaren munduan abilezia beharrezkoa delako.

Azkenik, finantza-baliabideetan, eskudiruaz baliatuko gara, izan ere, produktu merkea da eta bezeroek ez lukete krediturik behar gure produktua erosi ahal izateko.